

**Nik PATXI LAPATZA GORTAZAR BENGOA, Hernaniko udaleko Idazkariak honako hau ZIURTATZEN DUT**

## **OSOKO BILKURA**

### **HERNANIKO UDALAK 2025EKO MAIATZAREN 27AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

#### **ALKATEA:**

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra

#### **ALKATEORDEAK:**

Patxi Iburguren Etxeberria  
Ainara Atorrasagasti Urizar  
Aitor Lukas Solano

#### **ZINEGOTZIAK:**

Axier Mingo Arruabarrena  
Amaia Miner Canflanca  
Aitor Huizi Izagirre  
Urko Lazkoz Fernandes  
Oier Agirresarobe Lizaso  
Kistiñe Rodríguez Polaina  
Andoni Amonarraiz Gómez  
José Antonio Cuesta Solé  
Blanca Alberro Aranzasti  
Miryam Vázquez Vecino  
Mikel Gurutzeaga Zubillaga  
Ismael Ganchegui Gonzalez  
Ricardo Crespo Rubio  
Jaione Aristregi Cao  
Lurdes López Gorrotxategi

#### **IDAZKARIA:**

Patxi Lapatza-Gortazar Bengoa

#### **KONTU-HARTZAILEA:**

Aitor Sarasola Salaberria

2025eko maiatzaren 27an osoko bilkura egin da udaletxean, arratsaldeko 18:00etan, aurrez deialdia egina zegoelarik. Bilera Xabier Lertxundi Asteasuinzarra alkate jaunaren lehendakaritzapean egin da, eta bertan izan gara alboan aipatutako zinegotziak eta neu, Patxi Lapatza-Gortazar Bengoa idazkaria.

#### **Gai zerrenda:**

- 1. 2025-04-29KO OSOKO BILKURAREN 4-2025 AKTA ONARTZEA.**
- 2. DEKRETUEN BERRI EMATEA 2025DEKR989 DEKRETUTIK 2025DEKR1229 DEKRETURA.**
- 3. BERRI EMATEA. FINANTZA ETA AURREKONTUEN ALORREKO INFORMAZIOA.**
- 4. (HM) VI.05 EREMUKO XEHETASUN AZTERLANA. BEHIN BETIKO ONARPENA.**
- 5. (UG) EP.03.1 AZPIEREMUKO XEHETASUN AZTERLANA. BEHIN BETIKO ONARPENA.**
- 6. JANARI-FURGONETETAN EDO KALEAN JARTZEN DIREN POSTUETAN EGITEN DEN PRESTATUKO JAKIEN NOIZBEHINKAKO SALMENTA ARAUTUKO DUEN ORDENANTZARI HASIERAKO ONARPENA EMATEA.**
- 7. BURUJABETZEN KONTSEILUAREN FUNTZIONAMENDUA ARAUTUKO DUEN ERREGELAMENDUA-REN HASIERAKO ONARPENA.**
- 8. MOZIOA HERRIKO HAURREI ELIKADURA OSASUNTSUA ESKAINIKO DIEN JANGELA-EREDUA MARTXAN JARTZEA.**
- 9. ESKARIAK ETA GALDERAK.**

### **1. 2025-04-29KO OSOKO BILKURAREN 4-2025 AKTA ONARTZEA.**

**Alkatea;** Arratsalde on, seiak dira eta maiatzeko plenoari hasiera emango diogu.

Gai-zerrendako puntuekin hasiko gara eta lehenengoa, betiko moduan, aurreko osoko bilkurako akta onartzea izango litzateke. Ez dakit aktaren inguruan badagoen zerbait komentatzeko. Ez? Onartutzat emango dugu, beraz.



## **2. DEKRETUEN BERRI EMATEA 2025DEKR989 DEKRETUTIK 2025DEKR1229 DEKRETURA.**

**Alkatea;** Bigarren puntua ere plenoro ekartzen dugun puntua da eta dekretuen berri ematea da, aurreko plenotik hona eman ditugun dekretuen berri ematea da. 989 dekretu zenbakitik 1.229 dekretu zenbakira. Zerrenda pasa zaizue eta ez dakit bateren baten inguruan zalantzarik edo zerbait badagoen. Ez? Aurrera, orduan.

## **3. BERRI EMATEA. FINANTZA ETA AURREKONTUEN ALORREKO INFORMAZIOA.**

**Alkatea;** Hirugarren puntua ere berri emate bat da. Finantza eta aurrekontuen arloko informazioa. Urtean zehar jarduera aurrera doan heinean kontu hartzailetzatik egiten den informazio emate bat bada. Aurrekontuaren egoeraren ingurukoa. Aurrekontuaren egonkortasuna eta finantza iraunkortasunaz ematen du informazioa.

Pasa den Antolakuntza Batzordean aipatu zen xehetasun gehiagorekin, kontu hartzaileak berak azaldu zuen eta nik ondorio nagusienak aipatuko ditut eta galderarik edo zalantzarik balego, ondoren komentatuko dugu.

Orokorrean esan daiteke aurrekontuari begira eta 2025eko jarduera doan heinean, Hernaniko Udalak betetzen duela finantza iraunkortasunaren 2025erako helburua. Hernaniko Udalak ez dauka, gaur gaurkoz, zor bizirik. Gastu arauari dagokionez, aldiz, 2025eko exekuzioa nola doan ikusita, epealdi hau ikusita nola exekututzen ari den, aurreikusten da 2025eko ekitaldi bukaeran gastu arauaren helburuak ez direla beteko.

Zer esan nahi du honek edo zergatik? Orain arte aurreko ekitaldietatik zetozen gastuak hurrengo urtean inkorporatzen zirenean, ez ziren gastu arauan gastu berri moduan kontenplatu. Hor Gipuzkoako Foru Aldundiak lurralde mailan egiten zuen salbuespen bat zen hori eta salbuespen hori jada ez dagoenez, esan nahi du salbuespen hori ez dagoenetik, nahiz eta 2024tik zenbait gastutarako dirua gordeta eduki, inkorporatu baldin baditugu 2025ean bukatu ez ditugulako 2024ean, gastu berri moduan kontenplatu direla. Horrek izango du ondorioa 2025eko exekuzioaren amaieran edo ekitaldiaren amaieran gastu araua ez betetzea eta, honek esan nahi du, likidazioa egiten dugunean plan ekonomiko finantziero bat osatu beharko dugula eta onartu beharko dugula hemen, plenoan.

Plan ekonomiko finantziero horrek zer suposatzen duen? Bi urteko plan bat izango da, urteroko defizita eta zorraren helburua betetzeko izango dena. Hori dena aurreikusita dago denborarekin kontu hartzailetzatik eta, aurreikusita dago lanketa guztia eguneroko jardunean eta aurreikusita dauden gastu eta inbertsioetan eraginik ez izateko. Baina, formalki, egoera horretan egongo gara.

Bestetik, esan Hernaniko Udalaren kasuan legeak ezarritako ordainketa epeak betetzen direla, ez dagoela altxortegi arazorik ordainketa horiek legeak aipatzen dituen 30 egunetan egiteko, eta noizbait atzerapenik izan baldin bada tramitazioan izan den arazoren bategatik izan dela. Baina, orokorrean, betetzen dira legeak ezarritako epe horiek.

Hauek ondoriorik nagusienak. Ez dakit honen inguruan galderarik edo zalantzarik ba ote dagoen.

Ez badago ezer, berri emate bat da eta ez dago puntu hau bozkatu beharrik.

### **OSOKO BILKURAN EGINDAKO BERRI EMATEA**

Gipuzkoako toki erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 64 artikulua xedatzen duen moduan, igarotako epealdiari dagokion finantza eta aurrekontuen arloko informazioaren berri ematen da.

- 2025eko aurrekontu exekuzioaren egoera: Hernaniko Udala eta Ereñotzu T.E.T.



Ikus taulak K karpetan.

- Aurrekontu aldaketak:

Erakundea	Dekretua	Kopurua €	Azalpena
Hernaniko Udala	2025/1154	80.000,00	PUMP TRACK KIROL INSTALAZIORAKO. Kreditu Globaletik transferentzia. Aurrekontuari egindako emendakina. Guztira, 120.000 euroko kreditua.

- 2/2012 Aurrekontu eta Finantza iraunkortasun legeak ezarritako helburuak eta gastu arauaren betekizuna.

Ikus txostena K karpetan.

- 2025eko batez besteko ordainketa epea hornitzaileei. Aurrekontu eta Finantza egonkortasunari 18.5 artikuluan xedatu bezala, hornitzaileen ordainketa epeari buruzko jarraipena eta Sektore Publikoaren kontratazioari buruzko 3/2011 Errege Dekretuak xedatzen duen 30 eguneko ordainketa epea betetzen dela ziurtatzeko. Ikus txostena K karpetan.

#### [K:10 INFORMAZIO EKONOMIKOA|10.4-AURREK-EXEKUZIOA](#)

#### **4. (HM) VI.05 EREMUKO XEHETASUN AZTERLANA. BEHIN BETIKO ONARPENA.**

**Alkatea;** *Laugarren puntura pasata, kasu honetan VI.05 edo Traspacar eremuko xehetasun-azterlanari behin betiko onarpena ematea litzateke eta Ainarak azalduko digu.*

**Ainara Atorrasagasti:** *Kaixo, arratsalde on.*

*Xehetasun-azterlan hau Construcciones Sukiak aurkeztu zuen Hernaniko Antziola auzoko VI.05 izeneko eremurako, hau da, Traspacar eraikina zegoen eremurako. Eta helburu nagusia da lur zatian eraikuntza plana aldatzea; hau da, hasieran eraikin bakarria zegoen, L formarekin, eta orain bi eraikin planteatzen dira independenteak.*

*Tokiko Gobernutik hasiera onarpena eman zaio eta dokumentua egon da jende aurrean, ez da alegaziorik egon eta orduan proposatzen dena da behin Tokiko Gobernutik hona ekarrita, hemen onartzen bada Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.*

**Alkatea:** *Gai honen inguruan zalantzarik edo galderarik badago? Zuzenean bozkatzera pasako gara, orduan. VI.05 eremuko xehetasun-azterlanaren behin-betiko onarpenaren aldeko botoak? Aho-batez onartzen da.*

#### **OSOKO BILKURAK AHO BATEZ HARTUTAKO ERABAKIA**

Hernaniko Antziola auzoko (HM) VI.05 area antolatu asmoz, 2023ko martxoaren 14an, CONSTRUCCIONES SUKIA, SLk aurkeztu du Udalean Hernaniko (HM) VI.05 areako Xehetasun Azterlana, Xabier Uranga eta Zuria Aretxaga arkitektoak 2023ko otsailean idatzitakoa.

Xehetasun-azterketa honen xede nagusia lurzatiaren sestra-azala birdefinitzea da, L formako bolumen bakarria izatetik, zokalo komun baten gainean bi pieza angeluzuzen definitzera pasatuz (sestra gaineko erdi-sotoko oinplanoa), eta bi bolumenak hirigintza-arau bereziaren fitxa grafikoan maximotzat jotzen diren lerrokaduren barruan mantenduz.

Tokiko Gobernu-Batzarrak 2023ko apirilaren 27an hasierako onarpena eman zion (HM) VI.05 areako Xehetasun Azterlanari.

Hernaniko udaleko web orrian argitaratu ziren onespeneren akordioa eta xehetasun azterlanaren testu eta plano guztiak. Iragarkiak ere argitaratu dira GAOn (2023-06-5) eta egunkarietan (GARA, 2023-06-08, DV 2023-06-08, Berria 2023-06-08).

Jendaurreko epean ez da iradokizunik edo alegaziorik aurkeztu.

2023eko abuztuaren 4an Hegazkintza Zibileko txostena erregistratu zen. Txostena aldekoa izan zen eta ez zion eragozpenik jarri xehetasun azterlanari.

Ikusi dira espedientean dauden txostenak.

Kontuan hartu dira Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 73., 89. eta 98. artikulua, zein Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.c) artikulua.

Kontuan hartu da Tokiko Garapen batzordeak 2025eko maiatzaren 22an aho batez emandako irizpena

#### **Horiek horrela Osoko Bilkurak aho batez erabaki du:**

**LEHENA.-** Behin betiko onarpena ematea (HM) VI.05 Areako Xehetasun Azterlanari. Dokumentua CONSTRUCCIONES SUKIA SLK sustatzen du eta Xabier Uranga zein Zuria Aretxaga arkitektoak 2023ko otsailean idatzi zuten.

**BIGARRENA.-** Behin betiko onartutako dokumentuaren ale bat Gipuzkoako Foru Aldundiko Erregistroa bidaltzea eta ondoren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean behin betiko onespenera emateko erabakiaren testu osoa eta Xehetasun Azterlanaren Hirigintzako Arauak argitaratzea. Iragarkian Dokumentua Gipuzkoako Foru Aldundiko Erregistroan jaso dela adieraziko da.

**HIRUGARRENA.-** CONSTRUCCIONES SUKIA SLri erabaki hau jakinaraztea.

#### **5. (UG) EP.03.1 AZPIEREMUKO XEHETASUN AZTERLANA. BEHIN BETIKO ONARPENA.**

**Alkatea;** *Bosgarren puntura salto egingo dugu eta kasu honetan Epele 031 azpierzemuko xehetasun-azterlanari ere behin-betiko onarpena ematea izango litzateke eta hau ere Ainarak azalduko digu.*

**Ainara Atorrasagasti:** *Beste azterlan bat behin-betiko onarpena emateko. Kasu honetan Hernaniko partzela baten, Epeleko partzela baten elektrokimikak aurkeztutakoa. Eta, helburua da, berez enpresan instalazioetan egingo duten beste eraikin baten pabiloia nolakoa izan behar den eta horko ezaugarriak zehaztea. Berdin hemen hasierako onarpena eman zitzaion eta orain hona ekarrita eta hemen onartuta, berriz ere Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea izango litzateke.*

**Alkatea:** *Eskerrik asko, Ainara. Honen inguruan galderarik? Bozkatzera pasako gara, hortaz. Epele 031 azpierzemuko xehetasun-azterlanaren behin-betiko onarpenaren aldeko botoak? Hau ere aho batez onartzen da.*

#### **OSOKO BILKURAK AHO BATEZ HARTUTAKO ERABAKIA**

Xehetasun azterlan horren xede den (UG) EP 03.1 partzela, Hernanin indarrean dauden Arau Subsidiarioen (UG) EP.03 Arean dago.

Xehetasun azterlan horren xedea da, Hernanin, elektrokimika-instalazioan garatzen den industria-prozesuaren zati batean, pabiloia handitzeko egin nahi den eraikuntza-obran lerrokadurak, sestrak eta profila definitzea.

Dokumentua, Cristina Zarrabeitia Peñalba arkitektoak 2024ko azaroan idatzi du.

Tokiko Gobernu-Batzarrak 2024ko abenduaren 5ean hasierako onarpena eman zion ELECTROQUÍMICA DE HERNANI SAK aurkeztutako Epele auzoko (UG) EP 03.1 Partzelaren Xehetasun Azterlanari.

Hernaniko udaleko web-orrian argitaratu ziren onespeneren akordioa eta xehetasun azterlanaren testu eta plano guztiak. Iragarkiak ere argitaratu dira GAOn (2025-01-27) eta egunkarietan (GARA, 2025-01-17, DV 2025-01-17, Berria 2025-01-17).

Jendaurreko epean ez da iradokizunik edo alegaziorik aurkeztu.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegiturak Sailak 2025eko urtarrilaren 27an aldeko txostena eman dio Xehetasun Azterlanari.

2025eko martxoaren 17an Hegazkintza Zibileko txostena erregistratu zen. Txostena aldekoa izan da eta ez dio eragozpenik jarri Xehetasun Azterlanari.

Ikusi dira espedientean dauden txostenak.

Kontuan hartu dira Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 73., 89. eta 98. artikulua, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.c) artikulua.

Kontuan hartu da Tokiko Garapen batzordeak 2025eko maiatzaren 22an aho batez emandako irizpena

**Horiek horrela Osoko bilkurak aho batez erabaki du:**

**LEHENA.-** Behin betiko onarpena ematea (UG) EP 03.1 partzelako Xehetasun Azterlanari. Dokumentua ELECTROQUÍMICA HERNANI SAK sustatzen du eta Cristina Zarrabeitia Peñalba arkitektoak 2024ko azaroan idatzi du.

**BIGARRENA.-** Behin betiko onartutako dokumentuaren ale bat Gipuzkoako Foru Aldundiko Erregistroa bidaltzea eta ondoren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean behin betiko onespenera emateko erabakiaren testu osoa eta Xehetasun Azterlanaren Hirigintzako Arauak argitaratzea. Iragarkian Dokumentua Gipuzkoako Foru Aldundiko Erregistroan jaso dela adieraziko da.

**HIRUGARRENA.-** ELECTROQUÍMICA HERNANI SAr erabaki hau jakinaraztea.



## **6. JANARI-FURGONETETAN EDO KALEAN JARTZEN DIREN POSTUETAN EGITEN DEN PRESTATUKO JAKIEN NOIZBEHINKAKO SALMENTA ARAUTUKO DUEN ORDENANTZARI HASIERAKO ONARPENA EMATEA.**

**Alkatea;** *Seigarren puntura pasako gara. Janari furgonetetan edo kalean jartzen diren postuetan egiten den prestatutako jakien noizbehinkako salmenta arautuko duen ordenantzari hasierako onarpena ematea izango litzateke. Hau Patxi azalduko digu.*

**Patxi Iburguren:** *Kaixo, arratsalde on. Janari furgonetak edo kalean jartzen diren postuak ohikoak dira herriko hainbat ekitalditan. Establezimendu komertzial ibiltari hauek ibilbide profesional luzea daukate, baina azken urte hauetan eskaeren joeran aldaketa bat identifikatu dugu eta egoera horren aurrean ordenantza hau sortzeko beharra ikusi genuen. Batez ere, herritarrei erantzun txukuna eta modu ordenatu batean emateko.*

*Prozedura administratiboari dagokionez, pasa den hilean ordenantzaren proiektu hau prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat egin zen eta epealdi horretan jaso diren ekarpen guztiak erantzun dira eta aztertu dira. Gau aurkezten dugun ordenantzaren hasierako testu honetan batzuk jada txertatuta daude.*

*Merkataritza establezimendu ez finkoen salmentarako baimenen kopurua dezente igo da eta horregatik ordenantza honek ahalbidetuko du esleipen-zerrenda bat osatzea.*

*Udalarentzat tresna erabilgarria izango da, metodo eraginkorra izango da, baimenak emateko momentuan eta ordenantza honetatik sortzen den zerrenda hori Udalak erabiliko du urtean zehar hainbat festatan eta arlo ezberdinetan. Beti zerrendaren hurrenkera errespetatuz. Proposamen honen garapenean, pauso bat gehiago eman nahi izan dugu baimenak ematerakoan. Kontuan hartuko dira ingurumen irizpideak, irizpide linguistikoak eta tokiko ekonomiarekin konprometitutako irizpideak; adibidez, hornitzaileak, hurbileko kontsumoa, baita komunitatean inpaktu positiboa edukitzea ere.*

*Bukatzeko, lehia desleiala ekidinez, enpresen ekonomia zainduz eta elkarbizitza bermatuz, ordenantza hori, bai egiterakoan eta bai aplikatzerakoan, sentsibilitate ezberdinak kontutan hartu beharko ditugu. Herritarrenak, bizilagunenak, dendarienak, ostalarienak, saltzaile ibiltarienak eta kontsumitzaileenak. Eta prozesu administratiboak jarraituz, datozen egunetan Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dugu 30 egun bitartean eta gero ohiko prozedura administratiboa jarraituko du ordenantza honek.*

**Alkatea:** *Eskerrik asko, Patxi. Honen inguruan zerbait aipatzeko? Bozketara pasako gara zuzenean. Janari furgonetetan edo kalean jartzen diren postuetan egiten den prestatutako jakien noizbehinkako salmenta arautuko duen ordenantzari hasierako onarpena ematearen aldeko botoak? Hau ere aho-batez onartzen da.*

### **OSOKO BILKURAK AHO BATEZ EMANDAKO EBAZPENEA**

Azken urteetan, merkataritza establezimendu finkoetatik kanpo egiten den salmenta baimentzeko eskaera kopuruak gora egin du nabarmen Hernaniko Udalerrian. Ondorioz, hala profesional horiek egiten dituzten eskaerei modu ordenatu batean erantzun ahal izateko, nola gaiaren inguruko legediari egokitzeko, ordenantza baten beharra antzeman du Hernaniko Udalak.

Ordenantzaren proiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratu du Hernaniko Udalak eta epe horretan jasotakoak kontuan hartuta ordenantzaren testua prestatu du.

Genero Eraginaren Aurretiazko Ebaluazioaren Txostena egin du Udalak.



Ikusita, Udal Teknikariaren txostena.

Kontuan hartu da Tokiko Garapen batzordeak 2025eko maiatzaren 22an aho batez emandako irizpena

**Horiek horrela Osoko bilkurak aho batez erabaki du**

- 1- **BAKARRA.** Hernaniko Udalaren janari-furgonetetan edo kalean jartzen diren postuetan egiten den prestatuko jakien noizbehinkako salmenta arautuko duen ordenantzari hasierako onarpena ematea.

**7. BURUJABETZEN KONTSEILUAREN FUNTZIONAMENDUA ARAUTUKO DUEN ERREGELAMENDUA-REN HASIERAKO ONARPENEA.**

**Alkatea:** Zazpigarren puntuarekin hasiko gara. Burujabetzen Kontseiluaren funtzionamendua arautuko duen erregelamenduaren hasierako onarpena da eta Aitorrek azalduko digu.

**Aitor Lukas:** Arratsalde on, denoi.

*Gobernu taldetik bagoaz tokian tokiko beharretara egokitzen eta herritarren partaidetza sustatu eta areagotuko dituen politikak aldatzen. Beraz, helburua bada administrazio publikoaren izaera eta kultura birpentsatzea eta, nola ez, herritarren ahotsa politika publikoetan txertatzea.*

*Bizi dugun egoera sozial, politiko eta ekonomikoak egungo administrazio publikoak gaitasun mugatua duela bistakoa da, herritarrengana iristerako garaian eta, noski, komunitate demokratiko sendo bat eraikitzeko.*

*2021ean hasi zen Hernani Burujabe prozesuak argi eta garbi utzi du lankidetzazko ereduak eta lidergo partekatuak baduela bere zentzua egun bizi dugun errealitateari erantzun egonkor bat emateko. Hortaz, erronka sozialen konplexutasunak agerian utzi du behetik gorako ekintza instituzionalak bere mugak badituela, hau da, egungo ereduak bere mugak badituela eta honen aurrean gobernu taldetik funtsezko ikusten dugu demokrazian sakontzea eta ekintza politikoaren mugak zabaltzea.*

*Hau guztia eragile zein elkarten arteko lankidetzak formulak egituratuz eta izaera komunitarioko instituzionalitate berriak sustatuz egin nahi dugu.*

*Egiteko modu berriez ari gara, finean, gobernantza forma irekiago, gardenago eta lankidetzan oinarritutako formez, hain zuzen ere. Honetarako, behetik gorako hanka beharrezkoa da eta honek administrazioaren eta komunitatearen arteko herri mailako elkarlan kooperatiboa ahalbidetuko duela pentsatzen dugu.*

*Egoera eta erronkak geroz eta konplexuagoak dira eta, beraz, irtenbideak ere konplexu. Guk argi dugu, halako erronkei aurre egiteko estrategia komunitarioek herri eraikuntzan eta parte hartzean behetik gorako hanka hori egonkortzen dutela. Honekin, beraz, Hernani Burujabeko ereduaren oinarrituz, fokua jarri behar dugu Udala, herritarrak eta enpresak bat eginik, politika publikoak indartu, elkarrekin sortu eta ebaluatzen jarraitzeak garrantzia badaukala. Honekin egin nahi duguna zera da, Udalaren lidergoa geroz eta partekatuagoa izatea eta herritarrei autonomia zein erantzukizuna izateko baliabideak eskaintzea. Modu honetan, komunitatearen sendotzeko erremintak edukiko ditugu eta erronka sozialei erantzun kolektibo bat emateko aukera edukiko dugu.*



*Hauxe da Hernani Burujaberen baitan planteatzen duguna, orduan. Egiteko ditugun politiken diseinuan, exekuzioan, balorazio zein ebaluazioan, herritarrei dagokien espazioa bermatzea. Benetan sinesten dugu egiteko modu honetan eta, beraz, egiteko hauek zaintzea ere badagokigu.*

*Partaidetza ikuspegitik, zer eta nola egitera goazenaren garrantzia azpimarratzen dugu. Herritarrari burujabetza tresnak itzultzeko bideak eraikitzen goaz eta horrek planifikazio modu berri bat eskatzen du, egiteko modu berri bat. Horretan eragile bakoitzak bere papera jokatu du. Funtsezko paper bat. Sektore bakoitzak burujabetza mahai bana eratu du eta haietan eremu publiko, ekonomikoaren eta herritarren arteko lankidetzan bideratzen da. Mahai horretan diseinatzen dira sektore bakoitzeko proiektuak eta kudeatzen dira baliabideak. Eta mahai hauetan herritar oro da gonbidatua eta herritar oro da garrantzitsua.*

*Bestetik, Hernani Burujaberen erabakigune nagusia Burujabetzen Kontseilua da eta bertan tokiko garapenerako plangintza orokorra eztabaidatu eta adosten da. Hura aurrera eramateko bidea zein den zehazten da, baita ere. Planifikazioaren organo nagusia dela esan dezakegu eta han ezartzen dira lehentasunak, banatzen dira aurrekontuak eta bateratzen dira arloetako estrategiak.*

*Honexegatik eta egiteko modu berrietan sinesten dugulako ekartzen dugu Burujabetzen Kontseiluko barne araudiaren hasierako onarpena.*

*Milesker.*

**Alkatea:** Eskerrik asko, Aitor.

*Ez dakit honen inguruan zerbait aipatzeko dagoen. Erronda irekiko dugu.*

**Jaione Aristregi:** Kaixo, arratsalde on. Eskerrik asko hainbeste jende etortzeagatik, ez da ohikoa izaten.

*Gure taldeak informazioa eskatu du Hernani Burujabe proiektuari buruz eta informazio hori, gardentasun printzipioagatik jakin behar dugu. Ez dakigu zenbat diru bideratu den foro desberdinetara. Ez dakigu zenbateko horiek zein partidetatik gutxitu diren. Oso larria iruditzen zaigu kontu-hartzailatzatik ez kontrolatzea. Abenduan aurrekontu batzuk onartu genituen, partida batzuk hitzartuta. Horietako batean ere ez zen Hernani Burujabe aipatzen. Proiektu honek ez du diru-partidarik. Baina, badirudi, nondik ateratzen den ez dakigun diru batez elikatzen dela.*

*Galdezka ibili ondoren, jakin dugu Hernani Burujabearen gastu-bolumenaren informazio-kontrola aurrekontutik kanpo egiten dela, Alkatetzatik. Horrek zer esan nahi du? Testuingururik gabe, ilun xamarra dirudi.*

*Beraz, informaziorik ez dugunez, ez dugu proposamena babestuko. Ez gatoz bat administrazioaren berezko eskumenak inolako erantzukizun juridikorik ez duen pertsona talde bati kanporatzeko modu horrekin.*



Horrez gain, eta bukatzeko, udal administrazioan lan egiten duten pertsona batzuen zereginak aldatuko direla ikusten dugu. Era berean, ez zaigu Langile Sailaren txostenik eman eta ez dakigu sindikatuekin negoziatu denik.

Eskerrik asko.

**Alkatea:** Eskerrik asko, Jaione.

**Andoni Amonarraiz:** Arratsalde on.

Guk, Hernani Burujaberekin lotutako gaiak aurkezten zaizkigunean bozkatu ohi dugunez, kontra bozkatuko dugu. Aitzitik, gure ustez, herritarren iritzia aztertzeko aukeratu den formula ez da egokia; are gehiago hori guztia koordinatzeko 56.000 euroko aurrekontu-partida dagoenean. Gure ustez, zuzenean kudeatu beharko litzateke Udaletik eta udal teknikariekin. Horregatik bozkatuko dugu kontra.

**Alkatea:** Eskerrik asko, Andoni.

Hainbat kontu erantzuteagatik, Elkarrekin-Podemosi erantzuteko, informazioa eskatu duzuen honetan, kontu-hartzaileak erantzun dizue eta aipatu duzue, gainera, oso ondo esan duzue, testuingururik gabeko aipamenetan oinarritzen zarete eta hori da plenora ekartzen duzuen, informazio... ez nuke esango gehiagorik izan gabe, badaukazuelako informazio gehiago.

Hernani Burujaben inbertitzen den diruaren parte bat, eta hori Hernani Burujaberen aurrekontuak batzordean aurkeztu zirenean azaldu zen eta bertan zineten eta informazio guztia hor daukazue, Hernani Burujaberen web orrian ere hor daude memoriak eta aurrekontuak; eta saio bat egin genuen hori aztertzeko. Hor agertzen zen Hernaniko Udalak proiektu bakoitzean edo sektore bakoitzean inbertitzen zuen dirua eta beste eragileetatik beste erakunde publikoetatik iris zitezkeenak.

Nondik ateratzen da Hernaniko Udalaren dirua? Extrapresupuestariamente, behintzat, garbi dago Hernaniko Udalak ez duela ezer egiten. Aurrekontuetan dago jasota. Aurrekontuetako proiektu horietan, partidaz partida jasota dago eta dokumentu hori guztia zuek daukazue eta, gehiago esango dut, zuekin adostutako eta udal talde guztiekin adostutako aurrekontuak dira. Hori behin eta berriz adierazi izan dugu, Hernani Burujaberen baitan egiten diren proiektuak sail desberdinen aurrekontuetan barneratuta daudela kopuru horiek. Hernani Burujabek ez daukala partida bat. Eta hori behin eta berriz esan dizuegu. Eta Hernaniko Udalak bideratzen duen dirua dagoela aurrekontuetako partidetan jasota. Hernaniko Udalean ez da inongo jardun extrapresupuestariorik egiten. Ez dakit egin daitekeenik ere. Alkatetzatik aipatzen denean, Alkatetzatik extrapresupuestariamente, Alkatetzak partida batzuk ditu eta Alkatetzako partida horiek aurrekontuetan daude. Zuekin adostu ditugun aurrekontu horietan. Eta Alkatetzako partidak hor daude zehaztuta. Beraz, honekin argi gelditzen dena da, edo ea gelditzen zaizuen argi, behintzat, hor daudela Hernani Burujabera bideratzen diren proiektuetako partida guztiak jasota. Hor daude.

Hori batetik. Bestetik, eta honek ezkerreko kontsideratzen zareten alderdi bat izanik, edo hori esanda behintzat, partaidetza eta planifikazio komunitarioaz hitz egiten ari garenean Udalaren berezko eskumenak kanpora ateratzearen alde ez gaude esateak, 2025ean ezkerreko alderdi batek, ari garenean komentatzen, ari garenean hitz egiten administrazio publikoak pauso bat

eman behar duela, herritarren partaidetza aktiboago bat egon behar duela, uste dut ez datorrela bat zuen DNArekin.

Horrek kezkatu egiten nau. Ulertzen dudalako proiektua ez duzuela ulertu edo ez duzuela ulertu nahi. Bietako bat. Baina partaidetzaz, herritarren partaidetzaz hitz egiten ari garenean udal politikan edo politika publikoan eta ezkerreko alderdi batek esatea partaidetza aplikatzen dugunean eta hori sistematizatzen dugunean eskumenak kanpora ateratzen direla, tristea iruditzen zait. Horrela definituko nuke.

Eta, horrekin lotuko nuke, formatua. EAJk beti adierazi izan duzue herritarren partaidetzarekin ere oso ados ere ez zarete egon, mugak jarri izan dituzue, desadostasunak adierazi izan dituzue... Zuek argi esan izan dituzuenak dira bai batzorde eta bai plenoetan. Kontua da hemen hainbat eta hainbat gauza aipatzen direnak Gipuzkoako Foru Aldundiak berak bultzatzen dituela eta berak ere Hernani Burujabe proiektuaren inplementazioa diruz lagundutako proiektu bat ere badela. Beraz, EAJk gobernatzen duen erakundeek ere hau begi onez ikusten dutela. Hernaniren kasuan ez da hala izaten. Aipatzen baituzu, ez? "Herritarrei iritzia eskatzeko formula". Hemen ez gara herritarrei iritzia eskatzen ari. Beste pauso bat eman da hemen. Ari garena da herritarrekin, elkarrekin planifikatzen. Eta plan estrategikoak herritarrekin eta enpresekin batera egiten. Eta hori oso desberdina da. Hemen partaidetzan eta kooperazioan salto handi bat dago. Herritarrei iritzia eskatetik herritarrekin batera egitera pasatzen gara. Hor dago desberdintasuna. Eta, Hernani Burujaben, eta Burujabetza Kontseiluan sistematizatuta ahalbidetuko duena eta ahalbidetzen ari dena da planifikazio konpartituak egitea herritarrekin batera.

**Jaione Aristregi:** Bakarrik esatea informazioa eskatzen dugunean eta informazioa jasotzen dugunean, informazio hori zuzena dela pentsatzen dugu. Zuzena ez bada, ez pasa guri. Baina zuzenean esan zitzaiguna da Hernani Burujaberaren gastu-bolumena aurrekontuz kanpo egiten dela Alkatetzatik. Hitz horiexekin esan ziguten. Orduan, ez dugu ondo ulertu zer den hori. Webgunean informazioa bilatzen saiatu gara, handituz joan diren partida guztiei buruz, eta ez gara informazioa bilatzeko gai izan. Beraz, eskatu dugun gauza bakarria informazioa ematea izan da. Kontu batzuetatik zenbat kentzen den eta Hernani Burujaben zenbat sartzen den jakin nahi dugu.

Adibidez, eskatu dugu, baita ere, ea diru horrekin zer egiten den, diru horrek zer trazabilitate duen, gastuak, fakturak, soldatak kontrataziorik egonez gero, zenbat kontratazio dauden... Informazioa besterik ez dugu eskatu. Musika gustatzen zaigu, beti esan izan dugu; baina gero letran desadostasun batzuk agertzen zaizkigu. Orduan, informazio hori guztia izatea gustatuko litzaidake, Hernani Burujaberaren proiektu osoa baloratu ahal izateko.

Informazioa eskatzen dugu.

**Andoni Amonarraiz:** Hauteskundeak egin zirenetik ikusten ari garenaren arabera, gauzatzen ari dena alderdi politiko baten hauteskunde-programan oinarritzen da, alderdi horrek irabazi baititu hauteskundeak legitimoki. Eta berak esan du zer egingo duen eta hala exekutatzeko ari da. Ez dakit hauteskunde-programa Hernani Burujaberaren eskutik atera zen edo alderdi politikoko kideek Hernanirentzat onena zela pentsatu zutelako izan zen.

Beste erakunde batzuetan, nahiz eta programa gustatu eta abar, gu gara prozesua ikusten ari garenak. Erakunde batek ere ez dit galdetu zer ikusten ari garen. Inoiz erakunderen batek

galdetuko balit, esan egingo dut. Eta beste erakunde batzuk herritarren parte-hartzea eta herritarren iritzia biltzen ari dira, eta ez dira sistema hau erabiltzen ari. Guk uste dugu sistema hau ez dela egokiena. Horregatik azaltzen dugu Hernani Burujaberen gaia mahai gainean jartzen den bakoitzean.

**Alkatea:** Erantzun eta erronda itxiko dugu. Informazio eskaerari dagokionez, berriz errepikatzen dut: informazio hori guztia zuen eskura dago, egon da eta hor daukazue. Beste gauza bat da agian bilatzeko denbora dedikatu behar zaiola, partidak badakigulako zer diren. Adibide zehatz bat jarriko dut: azken plenoan Enherkom-ekin hitzarmen bat sinatu genuen aho-batez. Aipatu genuen, hitzarmen hori lehenengo udalerrria izan gara maila horretako hitzarmen batera iritsi garenak. Esan genuen eredu a zela, eredu garria zela. Eta hori ez zen posible izango Hernani Burujabe existitu izan ez balitz. Eta Hernani Burujabeko mahai sektorialak eta partaidetza foroak existitu izan ez balira. Izan delako Udala, enpresa, sektore ekonomiko eta herritarren mailan planifikatuta ahalbideratu izan den formula bat.

Emaitzak badaudelako gustatu edo ez, baina ikusten duzue zuek ere proiektuak onartu dituzuela honen inguruan.

Nik esan nahi dudana da modu honetan lan egiteak emaitzak baditu. Hitzarmen bat badaukagu. Eta badaude emaitza kualitatiboagoak direnak, asmatu behar dugunak; eta oso zailak direnak administrazio batean emaitza kualitatibo horiek ere kuantifikatzen.

Planifikazio konpartituak aberastu egiten ditu eta esaten dut: modu honetan lan egin izan ez bagenu, ziurrenik ez ginen iritsiko, adibidez, orain dela pleno bat onartu genuen hitzarmen eredu garri hori diseinatzerara. Eta egitasmo guztiak dira kritikagarriak eta, noski, eta aberasteko daude. Kritikarik onena planteamendu alternatibo bat aurkeztea izan daiteke. Edo dagoen planteamenduari ekarpenak egitea. Eta gaur gaurkoz, legegintzaldi honetan bi urte oraintxe erdia beteko dugu, ez da ekarpen bat ere egin. Edo ez da, partaidetzan sinisten baldin badugu, planteamendu orokor bat egin eta ez da debatera ekarri. Behin eta berriz aipatu izan dizuegu, gonbidatu izan zaituztegu eta berriz ere gonbidatzen zaituztegu, Hernani Burujaberen baitan Hernaniko Udalak dituen ordezkariak konpartitu ditzagula udal gobernu kideek eta oposizioko kideek. Ikusten dugulako hor asko aberastu daitekeela. Eta zuek uko egiten diozue horri. Argumentu desberdinak izan ditzakezue, zilegi izan daitezke, baina zilegitasun handiagoa izango luke planteamendu alternatibo bat egongo balitz hau hobetuko lukeena partaidetzari eta planifikazioari dagokionean. Eta, benetan, ikusten dut partaidetzan sinesten baldin bada, proposamenak eta aurrerapausoak eman behar direla. Gu behintzat irekita gaude eta beti adierazi izan dizuegu horrela.

Pentsatzen dudalako, horrek ere lan egiteko modu bat aldatzen duela, gure konfort egoeratik ateratzea ere eskatzen du, herritarrekin batera planifikatzen jartzeak orduak eta denbora inbertsio bat ere eskatzen du eta horrek askotan beldurra ematen du. Esango nuke, honen atzean beldur bat ere badagoela, lan egiteko modua aldatzeko beldurra. Baina nik, benetan, prozesu hau oso oso aberatsa izaten ari da, ematen ari den emaitzekin eta pleno honetan ikusi ditugu eta denok onartu izan ditugu, pertsonengan izaten ari den eraginekin eta auzozaintza proiektua hor daukagu, pertsonen osasunean eragina izaten ari dena; eta, benetan, gonbidatzen zaituztet, berriz ere, ekarpenak egin ditzazuen, planteamendu serioak eta landuak egin ditzazuen, benetan, jasoko ditugulako eta partaidetzan hobetu baldin badaiteke, noski, hobetzeko pausoak emango ditugulako.



Hau esanda, bozkatzera pasako gara. Burujabetza Kontseiluaren funtzionamendua arautuko duen erreglamenduaren hasierako onarpenaren aldeko botoak? EH Bildu udal taldearenak. Kontrako botoak? (...) honekin Burujabetza Kontseiluaren erreglamenduaren hasierako onarpena onartutzat ematen da

Bozketaren emaitza:

	Kopurua	Izen-abizenak
<b>ALDE</b>	10	1. Xabier Lertxundi Asteasuinzarra. 2. Patxi Iburguren Echeverria. 3. Axier Mingo Arruabarrena. 4. Aitor Lukas Solano. 5. Amaia Miner Canflanca. 6. Ainara Atorrasagasti Urizar. 7. Aitor Huizi Izagirre. 8. Urko Lazkoz Fernandes. 9. Oier Agirresarobe Lizaso. 10. Kistiñe Rodriguez Polaina.
<b>KONTRA</b>	9	1. Andoni Amonarraiz Gómez. 2. Jose Antonio Cuesta Solé. 3. Blanca Alberro Aranzasti. 4. Miryam Vázquez Vecino. 5. Mikel Gurutzeaga Zubillaga. 6. Ismael Ganchegui González. 7. Ricardo Crespo Rubio. 8. Jaione Aristregi Cao. 9. Lurdes López Gorrotxategi.

#### OSOKO BILKURAK GEHIENGOZ ONARTUTAKO ERABAKIA

Burujabetzen Kontseilua Hernaniko Udalaren parte-hartze publikorako organo aholku-emaile moduan eratuko da, eta horretarako Hernaniko Udalaren antolaketa sartu beharra dago eta bere araubidea zehaztea komenigarria da, herritarrek, eragileek eta ordezkari politikoek erregimen hori ezagutu eta erabiltze aldera.

Hona Hernaniko Burujabetza Kontseiluaren helburu orokorrak:

- Atxikimendu bidea eskaintzea, Hernaniko eragile sozial, ekonomiko eta publikoek egin behar dugun trantsizio ekosozialean protagonista izan gaitzen.
- Bizitza kolektiboaren beharrak erdigunean jarriko dituen eredu sozio-ekonomiko jasangarri bat eraikitzeko ardatzak zehaztu eta beharrezkoak izango diren baliabideak eta tresnak bideratzea.
- Bizitza kolektiborako oinarrikoak diren sektore estrategikoen gaineko herri burujabetza sustatzea.
- Tokiko demokrazia ekonomikoa sustatzea, hau da, gure lurraldearen bilakaera norabidetuko duten erabaki sozio-ekonomikoetan eragiteko eta erabakitze espazioa izatea.

e) Lurraldearen Planifikazio demokratikoagoa gauzatzea. Gure lurraldeak dituen behar eta lehentasunak, horiek asetzeko bide eta baliabideak, eta onuren (zein kalteen) itzulkinak kolektiboki kudeatzeko tresna eta kanala izatea. Horrekin batera, aipatu erantzukidetasun eta lankidetzazko-gobernu kultura sustatzea.

f) Hernaniko Trantsizio Ekosozialerako prozesuan perspektiba feminista, ekologista, kultur-artekoa eta euskalzalea gauzatzea.

Helburu organikoari dagokienez, hauek dira:

a) Hernani Burujaben parte hartzen duten lurralde eragile guztiak biltzeko eta koordinatzeko gune den neurrian, bere norabide estrategikoa zehaztuko duen gunea izango da.

b) Kontseilua beraren funtzionamendua erregulatuko duen erregelamendu bat zehaztea.

c) Hernani Burujabe prozesuan ematen diren desadostasunen konponketarako beharrezkoak diren neurriak hartzea.

Kontuan hartu da Herriarrentzako zerbitzuen batzordeak 2025eko maiatzaren 22an gehiengoz emandako irizpena

Horiek horrela **Hernaniko Osoko bilkurak gehiengoz erabaki du:**

**Lehena.-** Burujabetzen Kontseiluaren funtzionamendua arautuko duen erregelamendua onartzea.

**Bigarrena.-** Erabaki hau idazkaritzari jakinaraztea dagokion ondorioetarako.

## **8. MOZIOA HERRIKO HAURREI ELIKADURA OSASUNTSUA ESKAINIKO DIEN JANGELA-EREDUA MARTXAN JARTZEA.**

**Alkatea;** *Azken aurreko puntura pasako gara. Mozioarena. Kasu honetan mozio bat daukagu pleno honetan. Herriko haurrei elikadura osasuntsua eskainiko dien jangela eredu martxan jartzearen aldeko mozioa da. Hemen etorri zarete gaien inplikaturaz zaudeten hainbat pertsona eta eskatuko nizueke mozioa azaltzeko, defendatzeko. Mikrofonoa hartu, itzultzaileak entzun ahal izan dezan eta grabaketan zuen ahotsa gordea gelditu dadin.*

*Eskertuko nizueke izena eta zenen izenean zatozen.*

**Uxue Ariño, jangelaren izenean:** (Mozioa).

*Eskerrik asko.*

**Alkatea:** *Eskerrik asko zuri, mozioa aurkeztu eta defendatzeagatik.*

*Erronda irekiko dugu.*

**Jaione Aristregi:** *Kaixo, eskerrrik asko.*

*Gure taldeak babestu egiten du jangela eredu aldatzeko proiektua. Hori ez da eskari berria, urrunetik dator. Duela hiru urte guk gobernu taldearekin negoziatu genuen aurrekontuetan sartu genuen eta gainera aukera eman genien hainbat arrazoiengatik, behar zuten beste kolektibo batzuei jaten emateko.*



Gure proposamenak ez zuen harrera ona izan. Halaber, Institutuko eraikin berria eraiki zenean, orduan zegoen gobernu taldeko pertsona batek udal sukalde bat instalatzeko saiakera egin zuen, baina ez zuen arrakasta handirik izan. Jangela eredu aldatzear gain, elikadura hezkuntza ere garrantzitsua da. Produktu freskoak, hurbilekoak eta sasoikoa kontsumitzea ere aldeko apustua egiten dugu.

Orain, proiektu hau babestea dagokigu, baina argi utzi nahi dugu bide onera iristen bada, martxan jartzeko prozesua gardentasunez egin behar dela. Lehiaketa publiko bidez, aukera berdintasunak bermatzeko.

Eskerrik asko.

**Ricardo Crespo:** Kaixo eta eskerrik asko plenora etortzeagatik.

Gure partetik, bakarrik esatea edo adieraztea sekulako lana egin duzuela. Uste dut proiektu nahiko edo oso sendoa duzuela, aukera ezberdinekin, gainera, alderdi guztiei horrela azaldu diguzue eta egin duzuen ibilbidea ere nik uste ibilbide sendoa dela. Eta ez hori bakarrik, uste dut, baita ere, herriarentzat proiektu oso ona dela eta komenigarria dela gure haurrentzat.

Bakarrik esan guk babestuko dugula mozioa eta oker ez baldin banago, orain Eusko Jaurlaritzara jo behar duzue eta arrakasta handiena opa dizuet.

**Andoni Amonarraiz:** Guk aldeko botoa emango dugu, aurkeztu zeniguten proiektua oso interesgarria iruditu zitzaigulako. Jakina, dena egin ezin bada ere, zati bat egin ahal bada, orain dagoena baino askoz hobea izango da. Esan genizuen ez ginela janari mota baten oso aldekoak, orain gauden lekuan egongo ginatkeelako berriro, nahiz eta produktuak gertukoak izan; baina, tira, aurrerago ikusiko dugu. Eta, ez gara menu orokorretan kultura-, gizarte- edo erlijio-arazoengatik desberdintasunak egotearen oso aldekoak, baina, tira, hori hitz egingo da etorkizunean.

Hasiera batean, proiektu ona dela uste dugu, gure babesa daukazue, eta uneren batean beste laguntza motaren bat behar baduzue, hemen egongo gara.

**Asier Mingo:** Besteek esan duten bezala, eskerrik asko gaur hona etortzeagatik. Guk oso balorazio positiboa egiten dugu EH Bildutik herri ekimen honen inguruan. Azkenean, hernaniar talde bat zarete, herriko orokorrean herri guztiari, baina kasu honetan txikienen ongizatean eta hori hobetzeko egin daitezkeen ekimenetan pentsatutako zerbait delako hau. Ikuspegi erabat komunitarioa eman diozue ekintzari eta horregatik uste dugu, nahiz eta aurreko urteetan egon diren proposamenak, hitzezko proposamenak, lehenengo aldia da, agian, proposamen bat lurreratzen dena eta martxan jartzen dena. Eta, gainera, herritar talde batetik.

Urteak badira, baita ere, eta oso polita da gaur hori ikustea hemen, herriko ikastetxeak elkarlanean ari zaretela hainbat proiektutan eta hainbat egun antolatzen. Hori ez da herri guztietan gertatzen. Hernanin ere, urteak atzera, ez zen horrela. Azken urteetako aldaketa bat egon da hor lanean aritu zaretelako; eta ikusten dugu jangela eredu eraldaketa honek ilusio berezia piztu duela. Lehenengo egunetik, gainera, ikusi genuen. Gonbidapena jaso genuenetik, zuekin elkartzen hasi ginenetik.



Gainera, horri indarra eman nahi diogu. Gaur egun horrelako talde bat eratzea ez da batere erraza. Antolaketa, maiztasuna, elkartu zareten hilabeteroko bilera luze horietan gaur egun hori ez da ohikoa, geroz eta indibidualizatuago bizi garen mundu honetan. Eta orduan, nik uste dut hori dela lehenengo urratsa eta, gainera, etor dakigukeen edozein erantzunen gainetik nik hori aurretik jarriko nuke. Elikadura burujabetza ere bada gobernu talde honentzat garrantzia handia daukan esparru bat, bada denbora Hernani Burujabetik ere, elikadura burujabetza honetan sakontzen ari dena, eta bide horretan bidelagun izango gaituzue, noski.

Gure taldeak ere gure ekarpenak egin zituen, zuekin egindako bileraren ondoren, eta ikusten genuen eskola publikoan, langile horiek Eusko Jaurlaritzaren langileak izan behar zutela, itunpekoetan ere ikastetxeak berak kontratatutakoak, eta aldi berean, jangelan gure haurrek ematen duten denbora horrek ere kalitatezkoa behar duela. Apustu pedagogiko bat egon behar dela hor eta horretan ere langileen baldintzak eragina duela eta hori ere azpimarratu nahi genuen gaurkoan hemen.

Hortaz, bukatzeko, bide honetan gaurkoan eman dugun pauso hau lehen pauso bat da. Hona iristea izan da mugari txiki bat gora begira hasteko. Gu ez gara oztopo izango bide horretan. Hala ere, eta hau bilera guztietan adierazi dizuegu, guk ere beti gure artean hitz egin dugu, badakigu bidea ez dela erraza izango, bide horretan zailtasunak egongo direla, eta orain arte egin dugun bezala, guztion laguntza eta elkarrekintza izango direla, bakarrik, hori lortzea ahalbidetuko dutenak. Eta, baita ere, garbi utzi nahi duguna da eskuduntza lortzen denean, orduan hasiko garela benetan ikusten proiektu honek ze zailtasun, ze behar, Udalaren partetik ere ze gauza martxan jarri beharko ditugun. Baina irrikitan gaude egun hori noiz iritsiko eta lanean hasteko, zailtasunak zailtasun.

Zorionak egindako lanagatik, gaur hemen egoteagatik eta ea aurrerantzean ere talde honek berdin jarraitzen duen.

Eskerrik asko.

**Alkatea:** Eskerrik asko, Asier. Honekin bozkatzera pasako gara. Herriko haurrei elikadura osasuntsua eskainiko dion jangela eredia martxan jartzeko mozioaren aldeko botoak? **Aho-batez onartzen da.** Beraz, Hernaniko udalbatzaren udal talde guztien babesa badu hainbeste hilabetetan, kontziente naiz zenbat eta zenbat ordu pasa dituzuen lanketa hau egiten... udal talde guztien ordezkariak esan duten moduan, nire partetik ere zorionak egindako lanagatik. Aipatu da, askotan zaila izaten da gai baten inguruan ikastetxe desberdinetako ordezkariak elkartu eta herriarentzat eta gure herritarrentzat onuragarria den proiektu bat eta bakarra adostea, eta orain gelditzen zaiguna da dagokion erakundean proiektu hau defenditzea.

Udal talde guztien konpromisoa hartzen du Hernaniko Udalak, landu eta adostu eta onartu dugun proposamen hau Eusko Jaurlaritzaren aurrean ere defendatzeko. Beraz, zorionak egindako lanagatik eta eskerririk asko.

#### **OSOKO BILKURAK AHO BATEZ ONARTUTAKO MOZIOA**

**«8. Herriko haurrei elikadura osasuntsua eskainiko dien jangela-eredua martxan jartzea.**

Jakingo duzuen moduan, gaurkoan Hernaniko Hezkuntza Komunitatearen izenean Udalbatzara mozio bidez bozkatzera ekarri dugun proiektu honek bide luzea egin du.

- 2023-2024ko ikasturtearen hasieran hasi ziren herriko ikastetxe guztiak egungo jangela-eredua aldatzeko jangela-eredu berrirako proposamena lantzen. Sortutako lantalde horretan, Urumea Ikastola, Langile Ikastola, Aratz Ikastola, Txirrita Eskola Txikia, Elizatxo Ikastola eta Hernaniko Institutuko ordezkariak zeuden, helburu argi batekin: herriko haurrei elikadura osasuntsua eskainiko dien jangela eredia martxan jartzea.

Jangela eredu berri horrek hainbat asmo ditu:

- Elikadurak gure gizartean eta gorputzean ekartzen duenaz jabetzea.
- Gure herri ondarea balioan jartzea.
- Inguruan topa ditzakegun ekoizpen ereduaren inguruko hausnarketa sortaraztea eta dagozkigun kontsumo erabaki arduratsuak hartzea.
- Elikadura osasuntsua eta anitza bultzatzea, sasoiko elikagai freskoei lehentasuna emanez.
- Inguruko produktuak kontsumitzea, Buruntzaldea eta inguruko eskualdetakoa.
- Elikagaiak ekoizlearen eskuetatik jangelako platerera pasatzea.
- Jangela jateko toki bat izatetik haratago, guneko hezitzaile bat izatea.

Horretaz gain, proiektu herritarra denez, herriko hezkuntza komunitateaz gain, alderdi politikoaren babesa izatea ere oso garrantzitsua iruditzen zitzaien. Hori dela eta, zuekin harremanetan jarri gara azken aldian; batetik egitasmoa aurkeztu eta, bestetik, zer hobetu genezakeen jakiteko. Hain zuzen ere, uste dugulako herriko agente ezberdinen babesa eta iritzia aintzat hartzea oraindik eta gehiago indartzen duela gure asmoa.

Azaldutako arrazoi guztiak direla eta, **honako hau eskatu nahi diogu Hernaniko Udalbatzari:**

“Hernaniko Hezkuntza Komunitatetik ondu dugun proiektu hau babestu dezan. Izan ere, aurretik aipatu moduan, funtsezkoa iruditzen zaigu Hezkuntza Sailera egitasmo hau aurkezten dugunean herriko alderdi politiko guztien babesa izatea; proiektu honetan jarri dugun ilusioaz gain, zuon laguntza izateak ere indartu egingo baikaitu.”».

## 9. ESKARIAK ETA GALDERAK.

**Alkatea;** *Honekin bai, plenoaren azken puntura pasako gara. Eskari eta galderen puntua da. Ez dakit ba ote dagoen eskari edo galderarik. Ez badago ezer, honekin amaitutzat emango dugu maiatzeko plenoa.*

*Ekaineko plenoa daukagu, ekaineko plenoa azken asteartearen justu Sanjoanetan tokatzen da, Sanjoan eguna, gainera, beraz, ez-ohiko deialdian egingo dugu. Printzipioz eta aldaketarik ez baldin bada, ekainaren 17an.*

*Ondo segi.*

Hernani, 2025eko maiatzaren 27an

Idatziz gera dadin eta ondorioak izan ditzan egin dut ziurtagiri hau, alkatearen aginduz eta bere oniritziarekin

O.E

HERNANIKO ALKATEA

Ziurtagiri hau elektronikoki sinatuta dago: osotasuna eta egiazkotasuna,  
QR kodearen bidez edo azpiko egoitza elektronikoaren bidez egiazta dezakezu.

